

2025eko otsailaren 12an

EUSKARA KONTSEILUA

PRESIDENTEA

Paule Sanchez (EAJ-PNV)

BATZARKIDEAK

Mireia Elkoroiribe (alkatea)

Iker Txertudi (EAJ/PNV-Kirol zinegotzia)

Ima Garrastatxu (EH-BILDU)

Jorge Varela (Herriaren Eskubidea- Independientes de Durango)

Garbine Andrinua (Udal Euskaltegia)

Nerea Barrenetxea (San Antonio ikastetxea)

Nerea Narbaiza (San Antonio ikastetxea)

Oiber Frias (Nevers ikastetxea)

Mikel Eguia (Durangoko Kulturala)

Joseba Bikandi (Durango kirol taldea)

Joseba Derteano (Anboto komunikabideak)

Amaia (AEK)

Unai Agirrezabal (Kurutziaga ikastola)

Jone Aizpurua (Mugarra triatloi taldea)

Eneko Maurtua (Jesuitak ikastetxea)

Gotzon Gomez (DRT, Jesuitak ikastetxea)

Pello Zabarte (Berbaro elkarte)

Iruri Altzerreka (udaleko euskara dinamizatzailerak)

Alazne Arando (udaleko euskara trebatzailerak)

IDAZKARIA – Alazne Arando (udaleko euskara trebatzailerak)

Tokia:	Durangoko Udal Euskaltegia
Izaera:	Ohikoa
Hasiera ordua:	18:30
Amaiera ordua:	20:00

Kontseiluko presidentek bilkurari hasiera eman dio, eta ondoren, gai-zerrenda osatzen duten ondorengo puntu hauek aztertu dira:

1. BAT.-SARRERA.

Mireiak ongi etorria egin die Euskara Kontseiluko kideei. Esan du pozgarria dela euskaltegiko batzar gela beteta egotea, eta horrek esan nahi du Durangon euskara bultzatzeko interesa dagoela. Euskaltegian egitea inportantea eta pozgarria da bertako/herriko euskararen etxea delako, beraz, balio sinboliko berezia du.

Paulek eskerrak eman dizkie bertaratuei eta gogoratu du iaz landu genuen AROA planaren lur hartzea egingo dugula nolabait: martxan dauden ekintzak ikusi, aurtengo ekintzak lehenetsi..., taldeko lana egin eta ondoren plenarioan taldean esandakoak bateratu.

2. BI.-LANKETA.

Iruri gaurko lanketa azaltzen hasi da:

2024an AROA plana atera genuen datozen 4 urteetarako eta bertan 120 ekintzatik gora batzen dira. Asmoa da Kontseiluetan AROA planean jasotako ekintzei erreparatu, lehentasunak ezarri, aurtan egingarriak direnak identifikatu, datorren urtean edo epe laburrean egin daitezkeenak markatu eta lehentasunak edo nolabaiteko ordena ezartzea. Euskara zerbitzutik AROA plana hartu eta bertan dauden ekintzak lehentasun mailaren arabera sailkatu ditugu: martxan daudenak (**urdinak**), aurtan edo epe laburrean egingarriak direnak (**gorriak**), 2.mailako lehentasuna dutenak (**laranjak**), eta azkenik, hain presazkoak iruditzen ez zaizkigunak (**horiak**).

Lanketarekin hasi aurretik Irurik lau zapabost kideko taldeetan banatu ditu bertaratuak eta talde bakoitzari landu beharreko AROA planeko ardatzak banatu dizkie:

- Taldea: 1.ARDATZA: Gobernantza
- Taldea: 2. ARDATZA: Jarrerak eta motibazioa
- Taldea: 3. ARDATZA: Ezagutza eta gaitasuna
- Taldea: 4-5-6-7 ARDATZAK: Erabilera/Elkarreragina, Berrikuntza, Ikerketa/Sistematizazioa eta Komunikazioa/Hedapena

Jarraian egin beharreko ariketa azaldu die taldeei: bakoitzak tokatu zaizkien ekintzei erreparatu eta ondorengo galderak erantzun beharko ditu:

1. Ados zaudete markatutako lehentasun hauekin edo baten bat aldatuko zenukete?
2. Martxan daudenak ezagutzen dituzue? Horietan ezer hobetuko zenukete?
3. Ekintza guztietatik aurtan egiteko hiru aukeratu behar izanez gero, zeintzuk aukeratuko zenituzkete?

3. HIRU.-PLENARIOA.

Irurik taldeka irten diren ondorioak partekatzeko tarte zabaldur du.

1. GOBERNANTZA:

Laranjatik gorrira pasako lituzkete ondorengo ekintza hauek:

- **G.1.1.1.1:** Hizkuntza eskubideen urraketarako bulegoa sortu.
- **G.2.1.2.2:** Aurreiritzi eta zurrumurruei aurre egiteko estrategiak landu.
- **G.2.3.3.2:** Kulturartekotasun proiektuak bultzatu.

(Kulturak gaur egun berebiziko garrantzia duelako eta horri lehentasuna ematea inportantea delako)

- **G.4.1.3** ekimenaren barruan dauden ekintza guztiak (batetik zortzira), gaur egun sare sozialek daukaten garrantzia ikusita.

Bestalde, oso garrantzitsuak iruditzen zaizkie ardatz honetan gorritz markatuta zeudenak: **G.1.2.2.3, G.1.2.3.1, G.1.2.3.2, G.1.2.3.3, G.1.2.3.4, G.1.3.3.1, G.1.3.3.4, G.1.3.4.1.**

(ikusi aktarekin batera bidalitako AROA planeko ekintzak dituen Excel dokumentua)

2. JARRERAK/MOTIBAZIOAK:

Esku artean izan dituzten ekintzen artean batzuei lehentasuna emango liokete:

- **JM. 1.1.3.2:** Euskara ikasleei, eta oro har, ezagutza mugatua edo pasiboa dutenei erabilera aukerak eskaini, aisialdiari lotuta → hemen ikusten dute LHN eta HHn badagoela horrelako zerbitzu bat, baina DBHko ikasleak pixka bat aparte geratzen direla (bai kanpotik datozenak, bai hemengoak direnak eta euskararekin zailtasunak dutenak, agian ez delako beraien ama-hizkuntza).

Aipatu dute euskararen egunean herri mailan zerbait antolatzearen beharra ikusten dutela. Ikastetxeetan hainbat gauza egiten dira, baina kalera ateratzea garrantzitsua iruditzen zaie. Nahiz eta aurten kirola landu den eta orokorrean ondo egon den, herri mailan zerbait egitea nahiko lukete.

Ondorengo ekintza biak laranjatik gorrira pasatu eta lehentasuna emango liekete:

- **JM.1.3.4.3:** Nerabe-gazteekin elkarlanean, eurentzat erreferente izan daitezkeen pertsonekin saioak antolatu.
- **JM.2.2.2.4:** Gazteek euskararekiko sentsibilizazioa areagotzeko egitasmoak antolatu.

Amaiak aipatu du, atala jarrera/motibazioa izanik, harritu egin dela bertan kirola agertzen ez dela ikustean (nahiz eta beste atalen batean aipatu). Bere iritziz, eskolaz kanpoko kirolean erabileraren jarraipena bermatzeko ezinbestekoa da monitoreak euskaldunak izatea, erabiltzaileak erdaldunak izan arren.

Umeak eskolaz kanpoko kirolera iristen direnean, asko euskaldunak dira, eta hor begiraleak edo entrenatzaileak erdaldunak direnean batez ere, hizkuntza erabilera aldatu egiten da. Kirola gustuz egiten duten ekintza bat izanik, inork behartu gabe, begiralea edo entrenatzailea euskalduna bada, euskaraz egiten badu eta euskara bera bultzatzen badu, ume horiek euskaldunak izango dira. Gustuz egindako zerbait denez, jarrera eta motibazioarekin guztiz lotuta dagoela iruditzen zaio. Gazteen kirolean eta helduen kirol eskaintzan ere gauza bera komentatu du. Ekintza asko erdaraz egiten dira nahiz eta euskaraz matrikulatuta egon. Beraz, ekintza positiboa litzateke jarrera eta motibazioa lantzeko monitoreak nahitaez euskaldunak izatea. Gaineratu du badaudela ekintza batzuk euskaraz jakin ez arren euskara hutsean egin daitezkeenak.

Gotzonek gaineratu du klubetan dauden monitoreek lagundu beharko luketela beraien jarduna euskaraz bideratzen. Klubek berariazko prestakuntza behar dutela aipatu du, dagokien kirola euskaraz ondo azaltzeko, izan ere, monitoreak alda daitezke, baina kluba beti egongo da hor eta komeni da gai honetan oinarri sendoa edukitzea, entrenatzaileen eta saioen jarduna euskaraz izan dadin.

3. EZAGUTZA/GAITASUNA:

- Urdinez daudenak, hau da, martxan daudenak, oro har oso garrantzitsuak iruditzen zaizkie.
- Dena dela, **EG.3.3 ekintzaren** (Euskara errefortzuak eskola ume eta gazteei (LH eta DBH):GUREAN) inguruan honako hau komentatu dute:

Eskola batzuetan GUREAN euskara errefortzuen beharria dago, denak ez daudelako proiektu horren barruan eta, beraz, kasu askotan beraiek egiten diote aurre ume etorkin berriei, eskolak berak dauzkan baliabideekin. Baina gero eta ume gehiago daude, batez ere DBHn, eta horiei laguntza ematea egokia izango litzateke. Eskola batzuek arratsaldeko 17:00etan eskaintzen dituzte umeentzako euskara errefortzuak, baina Hezkuntza Foroan komentatu zen nahiko desagokia dela, umeak nekatuta heltzen direlako eskola ostean, eta gainera, gurasoek ere ez dituztelako motibatzen.

Gotzonek aipatu du azken asteetan 5-6 ikasle etorkin heldu direla DBH4ra. Ikasturtea hasita dagoenez, askotan beharra duten horiei ez diegu benetako erantzun bat ematen. Ideala litzateke udaletxearekin edo/eta euskaltegiarekin batera, tartetxo bat eskaintzea eskola ordutegi barruan (demagun 9:00etatik 11:00etara) euskara ikasteko derrigorrezko saioak egiteko. Egutegiko ordu bi egiten badituzte, astean 10 ordu dira, eta hiruhileko batean ordu asko dira. Horrela, errazagoa izango litzateke eskolatan integrazioa egitea. Arratsaldeko 17:00etan egitea ez zaio egokia iruditzen, umeek eskolan 7-8 ordu daramatzatelako eta beraientzat sufrimendua izan daiteke, agian momentu horretan behar dutena kirola edo bestelako jardueraren bat egitea delako ("despejatzeko"), eta ez eskola orduetaz kanpo berriro klaseetara joatea. Ikusita denok antzerako beharra dugula, egokia litzateke neurri komun bat egituratzea, esan bezala ordutegi barruan euskara saioak egin eta beraien euskalduntze prozesuan laguntzeko.

Gaur gaurkoz eskola askok dituzten baliabideekin ez da nahikoa umeak euskalduntzeko, eta askok dibertsifikazio taldeetan amaitzen dute edota *ghettoak* sortzen dira.

Garbinek esan du GUREAN proiektua egon arren, ez dela heltzen eskola guztiek dauzkaten beharrianetara. Eskolek zer behar duten aztertu beharko litzateke gero modu egokienean sistematizatzeko.

Honako hau gorritz dago eta oso garrantzitsua iruditzen zaie:

- **EG.3.2:** AISA ikastaroa egin duten atzerritzarrentzat euskarako A1 maila ikasteko zubi lana egin. Hitzarmena sinatu herriko euskaltegiekin doakoa izan dadin:

AISA 60 orduko harrera-ikastaroa da eta doakoa da ikasleentzat. Euskaltegiak birritan ere egin izan du ikastaroa, ikasleek hala eskatuta: HABEri galdetu ea posiblea den berriz doakoa izatea eta 60 orduko beste ikastaro bat eskaini da. Hala ere, doako ikastaro bi egin ondoren, nola integratzen dituzu ikasle hauek gure ohiko jardunera? Oztopo nagusia dirua da, izan ere, doakoa izatetik zerbait ordaintzera pasatuko liriteke. Aurten HABEk A1erako dirulaguntza bat eman du, baina ez dakigu datorren urtean ere emango duen: aurten merkeagoa izango dute ikastaro hori aipatutako dirulaguntza dagoelako, baina datorren urtean ezin jakin. Ezer ez ordaintzetik diru kopuru bat suposatuko luke, eta askok ez dute baliabiderik. Gainera, kasu askotan behar duten lehen gauza lana da, eta dirua edukitzeko lana behar dute.

Oso garrantzitsua iruditzen zaie hitzarmena sinatzea ikastaro hauek doakoak izan daitezen.

Jarraian dagoen ekintza ere gorritz markatuta dago eta egokia eta garrantzitsua iruditzen zaie:

- **EG.3.4:** GUREAN eskola errefortzuak bukatzen dituzten hurrei aisia euskaraz egiteko katalogoa/eskaintza eskaini eta bertara bideratu:

GUREAN errefortzuak amaitu ostean, egokia litzateke ikasleei euskarazko katalogo edo eskaintzaren bat eskaini eta euskalduntze prozesuarekin jarraitzea, proiektu horrekin prozesua eten edo amaitu ez dadin.

Bukatzeko, laranja kolorez dauden ekintzak garrantzitsuak iruditzen zaizkie, baina ez gorrira pasatzeko modukoak. Ondo sailkatuta daudela uste dute.

4. ERABILERA/ELKARRERAGINA, BERRIKUNTZA, IKERKETA/SISTEMATIZAZIOA, KOMUNIKAZIOA/HEDAPENA:

Erabileran zentratu dira gehienbat. Orokorrean lehentasunen banaketa egokia iruditzen zaie.

- **EE.1.1.5:** Aisialdi antolatua eta kirolaren esparruetan eskaintza zein erabilera bermatu eta orokortu ekimenaren barruan dauden ekintza guztiak garrantzitsuak iruditzen zaizkie, baina berezki bi aipamen egin dituzte:
 - **EE.1.1.5.3:** Herriko kirolean, aisialdi antolatuan eta eskolaz kanpoko jardueretan euskararen erabilera areagotzeko hausnarketa saioak eta ikastaroak antolatu klubetako zuzendarientzat,

langileentzat eta entrenatzaileentzat. Hau oso egokia iruditzen zaie euskararen egunean kirol talde eta elkarteei eman zitzaizkien baliabide eta lanketei nolabaiteko jarraipena egiteko.

Nereak esan du ea honek zerbaitetarako balio duen, izan ere, orain gutxi, desfibriladoreen ikastaroa eskaini zen, klubak parte hartzeko apuntatu ginen eta ez daki jada ikastaroa burutu den ala ez. Gaineratu du oso jende gutxi apuntatu dela eta agian minimo batzuk eskatu behar zaizkiela erakundeei, dirulaguntza jasotzen duten heinean. Ez daki nola kontrolatu daitekeen hezitzaileek euskaraz egiten duten eta jarduna euskaraz izaten den. Klubek esan dezakete euskaraz egiten dutela eta gero erdaraz egin, beraz, udala sartu beharko litzateke tartean minimo batzuk eskatzeko eta jarraipen bat egiteko.

Gotzonek esan du batzuetan honela egiten dela: “klub honek X kide ditu prestakuntza saioetan”, eta gero horrek puntuak dira dirulaguntzak jasotzeko.

Mireiak esan du paperetan gauza asko agertzen direla, baina gero errealitatea ez dela horrela izaten. Hor jarraipen bat egitea falta dela esan du.

Paulek esan du hau guztia **EE.1.1.5.8** ekintzan jasotzen dela: Euskara sailaren eta kirol elkartearen artean gindako *Euskara eta kirola eskutik* hitzarmenaren jarraipena eta berrikusketa: konpromisuen betetze maila aztertu. Esan du garrantzitsua dela betekizunak alde bietan betetzen diren ala ez ikustea eta jarraipena egitea, ez teoriarik bakarrik, baizik eta praktikan.

- **EE. 1.1.5.6:** Herriko kirolean, aisialdi antolatuan eta eskolaz kanpoko jardueretan barne (kideei) eta kanpo komunikazioa (sare sozialak) euskaraz izan dadin laguntza eman: ekonomikoa, materiala... Komunikazioa gaur egun oso garrantzitsua da eta orokorrean bi hizkuntzetan egiten da, baina badaude mekanismoak euskara lehenesteko eta ulergarritasunaren mailan inor ez baztertzeko, irudiekin esaterako. Horregatik, horren trebakuntzak asko lagunduko lukeela aipatu dute.

Paulek 3. taldeak aipatutako euskara errefortzuei gurasoen parte hartzea eta formakuntza gehituko luketela esan du. Esaterako, ikasturte hasieran egiten diren guraso batzarretan ordu pare batean, euskarazko baliabideak eman, hiztegia landu etab. Interesgarria izan daitekeela deritzo.

4. LAU.-AZKEN ARIKETA.

Ariketa nagusiarekin bukatuta, **Irurik** kide bakoitzari orri bat banatu die honako bi galdera hauek erantzuteko eta beraien iritziak jasotzeko:

- Zer iruditu zaizu aurtengo euskararen eguna? (2024ko abenduaren 3koa, hain zuzen).
- Euskara Kontseiluaren maiztasuna: zenbatero uste duzu batu beharko ginatekeela AROA Plana gainbegiratzeko? Orain arte sarriago geratzen ginen AROA plana bera garatzen genbiltzalako, baina orain gainbegiraketa egiteko geratuko gara, beraz hau zehaztu beharko da.

(Jasotako erantzunak I.Eranskinean txertatuta daude, 8.orrian)

5. BOST.-GALDE-ESKEAK.

Ez da galderarik egon.

Eta aztertzeko gai gehiagorik ez dagoela ikusirik, presidenteak amaiera eman dio batzarrari; eta nik, euskara kontseiluaren idazkari naizen honek, akta jaso eta egiaztatu dut.

I.Eranskina

GALDEREN ERANTZUNAK:

1. **Euskararen eguna: zer iruditzen zaitzaizun 2024ko euskararen eguna? Aurten zer egin beharko litzatekeela uste duzu? Ezer hobetzekorik?**

- Euskararen eguna egun guztiak izan beharko lirateke.
- Eskolan ez zuen eraginik izan. Eskolak berak antolatu zituen ekintzak, urtero moduan.
- Ikusgarritasun gehiago eman, erakundetu. Herri mailan ezer potenteagoa, ikusgarriagoa landu, eta aukera badago, egun horretan ez bakarrik mugatzea.
- Nire ustez oso ondo egon da. Aurretik egin beharreko lan guztiak arinago komunikatu, indar gehiagorik kalera atera.
- Nik uste dut orain dela hiru urte edo egin zen erako ekintza egitea ondo egongo litzatekeela: "ipuinak idatzi". Udaletxe aurrean irakurri ziren eta eskolen parte hartzea oso handia izan zen. Inplikazio handia eskatzen duten ekintzak herri mailan, ikusgarritasuna dutenak.
- Ekintza herrikoia egingo nuke, elkarte eta klubak inplikatu.
- Kirolean ardatza jartzea ondo egon zen, hasierako abiapuntu gisa oso baliagarria izan baitaiteke. Hala ere, ekintzak kalera atera beharko genituzke, herriari zabaldu (doako zein ordaindua).
- Euskara egunerako antolatu zena lehenengo urratsa izan zen, bidea egiten jarraitu behar dugu.
- 2024ko ekintza ez zen herri osora heldu, kirol taldeetan edo gazteetan geratu zen ekintza. Herriar guztiei luzatu beharko litzake ekintzak.
- Herri mailan pobrea izan zen- Mezu batean bidalitako proposamenak. Herriarrentzako eta ikasleentzako jarduerak behar doguz.
- Ondo egon zen. Aurten beste pausotxo bat emango nuke. Herri mailako egitasmo parte hartzaile bat egingo nuke.
- Nahiko pobrea. Adierazpen instituzionala ez da nahikoa. Gizartea aktibatu behar da egunaren aurretik.
- Kirol taldeak, hau da, herriko eragile eta elkarteak, lehen planora ekartzeko ahalegina interesgarria izan zela deritzot.

2. **Kontseiluaren maiztasuna: zenbatero batu beharko ginatekeela uste duzu? Zergatik?**

- Jarraipena egiteko baino ez bada, hilean behin.
- Urtean lau aldiz: otsaila + apirila/maiatza + iraila + abendua.
- Hilean behin nahikoa.
- Kontseiluaren lana AROA Plana jarraitzea bada 3-4 hilerik behin batzea egoki ikusiko nukeen.
- Bi hilean behin edo sei astean behin.
- Bi hilean behin.
- Bi hilabeterik behin, jarraipena egin ahal izateko.
- Hiru hilerik behin.
- Bi hilabetero ondo legoke. Lanketa eta ideiak lantzeko hobeto.
- Hilabetero.
- Hiruhilabetero.
- Hilean behin. Maiztasuna behar da, baina batetik bestera aurrera pausoak egon beharko dira.
- Hilabetero.
- Hiru hilean behin.